

## INFORMAZIO-SEGURTASUN POLITIKA

Automobilgintzaren industriarako eta etxeko sektorerako kautxuzko eta plastikozko piezen diseinuan, ekoizpenean eta salmentan arrakasta lortzen laguntzea da Cikautxoren jardueraren xedea. Horretarako, informazioaren segurtasuna funtsezkoa da zerbitzuak ematen jarraitzea bermatzeko orduan aurki ditzakegun mehatxu ugarien aurrean informazio aktiboak babesteko, kooperatibari egindako kalteak murrizteko eta efizientzia areagotu eta hobekuntza-aukerei etekina ateratzeko.

Hauek dira informazio-segurtasun arloko helburu nagusiak:

- Eskuragarritasun, konfidentzialtasun eta osotasun galeren aurka babestea informazioa.
- Bezeroen eskakizunak eta dagozkien legeak eta arautegiak betetzea.
- Enpresaren baldintzak betetzea informazio-sistemen eta informazioaren segurtasunaren inguruan.
- Behar bezala ematea segurtasun ezbeharren berri eta haiek zuzen tratatzea.
- Kudeaketa sistemen eraginkortasuna etengabe hobetzeko lan egitea.

Politika hau beteko ez balitz, urraketa larritzat hartuko da, eta barne-araudian ezarritako zigor handienak eragingo dituzte.

Guztien eskura egongo da Cikautxoren informazio-segurtasun politika.

Urtero berrikusiko dira konpromiso horiek P11 "Informazio-sistemen Euskarria" prozesuaren Kudeaketa-planaren barruan.



***Iñigo Laskurain Pagaegi***  
***Zuzendari Nagusia***

Berriatua, 2017ko azaroaren 1ean